

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak 16,6 milioi euroko diru-laguntza eman die industriako 173 ETERi

116,7 milioi euro inbertitzen ari dira eta 700 lanpostuko sortuko dituzte, haietatik % 76 finkoak

Jueves, 03 de marzo de 2016

Nafarroako Gobernuak [industriako ETEetan inbertitzeko laguntza-deialdia](#) ebatzi du; haren bidez, 16,64 milioi euro emango zaizkie 2015ean, eta zati handi batean, 2016an 116,7 milioi euroko inbertsioak egingo dituzten 173 enpresari.


Batez besteko laguntza babesgarria den inbertsioaren % 15era heltzen da, 700 lanpostu sortzea espero da; haietatik % 76 (534), finkoak. Diru-laguntza horien % 50 Eskualde Garapeneko Europako Funtsak kofinantzatzen du, Nafarroako EGEF 2014-2020 Programa Eragilearen bidez.

Babestutako 173 ekimenetatik, ekoizpen-fabrika berriak abian jartzeko 36 proiektu azpimarratu behar dira. Ekimen horien zati handiena berriki sortutako enpresek sustatzen dute, eta inbertsioaren zenbatekoagatik, 9 enpresa nabarmentzen dira (milioi bat euro baino gehiagokoak): Lozys Pharmaceuticals S.L., Lekarozen; Davalor, Taxoaren; Envaplast S.A., Vianan; Electrodomésticos Jata, S.A., Tuteran; Simogaberri, S.L. eta Keytech, S.L., Lekunberrin; Recubrimientos Plásticos, S.A., Los Arcosen; Ecofert Sansoain, Artaxoa; eta Eukoplast Polymer Extrusion, Areson.

Laguntzen helburua industria-sektoreko inbertsioak bultzatzea da, eta bereziki, enpresa-mota batean, ETEetan (250 enplegatutako, gehienez ere), Nafarroako industriaren sare nagusia dena; izan ere, hazkunde nahiz enplegua sortzeko "funtsezko" eginkizuna betetzen dute, eskualdeko BPGd-ean garrantzia handia dute, bai eta I+G+B arloan nahiz esportazioetan ere.

### Metal-sektoreko inbertsioa

Sektoreka, deialdi honetan metal-sektorean inbertitzeko behar garrantzitsua hauteman da. Zehazki, proiektuen % 40 (173tik 70) eta inbertsioaren % 35 (41,2 milioi euro) metalurgia eta produktu mekanikoek sortzen dute. Makinarian eta ekipoetan egindako inbertsioak ere azpimarratu behar dira (inbertsioaren % 14); industria kimikoan ( % 12);



Diru-laguntzen % 50 EGEF Europako funtsak kofinantzatzen ditu.

manufakturen industrian eta zerbitzuetan (% 11); kautxua eta plastikoetan(% 10), nekazaritzako elikagaietan-prestatutako plateretan (% 6); garraioko ibilgailuetan (% 5) eta arte grafikoetan (% 4).

Enplegu berria sortzeari dagokionez (700 lanpostu), % 50 baino gehiago bi sektoretan gertatu da: metalurgia eta produktu mekanikoak dira berriz ere rankingaren buru, haietan sortzen da lanpostuen % 28 (197 lanpostu, 191 finkoak); atzetik dator zerbitzuen arloa (% 23 edo 159 lanpostu, 122 finkoak). Kautxu eta plastikoen sektorean sortutako lanpostuak ere garrantzitsua da (% 14 edo 97 lanpostu, 68 finkoak).

### **Zonaldeka**

Kokapenari dagokionez, espedienteen % 39 (68) eta inbertsio guztiaren % 26 (30,4 milioi) Iruñerrikoak dira; bertan, 275 enplegu sortzea aurreikusten da, % 74 finkoak (204 enplegu).

Proiektuen % 35 eta inbertsioaren % 40 Erribera aldean izan da (Arga, Aragon, Ebro eta Tuter). Zehazki, Ebroko Erriberan kokatzen dira espedienteen % 13 (inbertsioko 23 proiektu) eta proiektatutako inbertsioaren % 17 (20 milioi), 77 lanpostu sortzeko aurreikuspenarekin, haietatik 52, finkoak.

Beste 15 ekimen (% 9), 10 milioiko inbertsioa aurreikusiz (kopuru guztiaren % 9) Ebroko Erriberakoak dira, eta 97 lanpostu sortuko dira bertan, 81 finkoak. Argako Erribera eta Aragoikoak dira 23 espediente (kopuru guztiaren % 13), 16 milioiko inbertsioarekin (% 14) eta 71 lanpostu sortuz, 55 finkoak.

Tafalla-Erriberri erdialdeko zonaldean, 3 proiektu jasoko dituzte laguntzak (kopuru guztiaren % 2), 4,4 milioi euroko proiektatutako inbertsio baterako (% 4), eta lau lanpostu sortuko dira.

Deialdira ez dira aurkeztu Zangoza inguruko proiektuak. Eta Estellerrikoak dira 8 espediente (% 5), 4,6 milioi euroko proiektatutako inbertsio batekin. 49 lanpostu sortuko dira, 27 finkoak.

Nafarroako iparraldetik, 4 espediente (% 2) eta aurreikusitako 864.300 euroko inbertsioa Pirinioetako ibarrei dagokie, 11 lanpostu sortzeko aurreikuspenarekin, 4 finkoak (% 36).

Nafarroa Atlantikoan, enpresako 20 ekimenek (kopuru guztiaren % 12) 21,54 milioi inbertitzea espero dute (% 18), eta 90 lanpostu sortzea, % 94 finkoak (85 lanpostu).

Azkenik, 9 espediente (% 5) Baztan-Bidasoakoak dira, aurreikusitako 8,2 milioi euroko inbertsioarekin (% 7), eta 26 lanpostu sortuz, 22 finkoak.

### **ETE moten arabera**

Enpresa-tamainaren arabera, espedienteen % 39 (67 ekimen) mikroETEEK sustatzen dituzte, haiek 16,9 milioi inbertituko dituzte (kopuru guztiaren % 15) eta 3,2 milioiko diru-laguntza jasoko dute (babesgarria den inbertsioaren % 20). 103 enplegu sortuko dute, guztiaren % 15, eta haietatik, 77 finkoak (80 lanpostu).

Espedienteen beste % 34 bat ETE txikietatik dator (59 ekimen), 41,3 milioi inbertituko dute (kopuru guztiaren % 35) eta babesgarria den inbertsioaren % 19ko batez besteko laguntza jasoko; hala, 332 lanpostu sortuko dute, % 83 finkoak (274).

Azkenik, espedienteen % 27 (47) enpresa txikietakoak dira, eta aurreikusitako inbertsio guztiaren % 50 sortuko dute (58,4 milioi). % 11ko batez besteko laguntza jasotzen dute eta 265 lanpostu sortuko dute (guztiaren % 38), haietatik 180, finkoak.